

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea****Zamudioko udalerrian langabeak kontratatzeko dirulaguntzen programan sartzeko deialdia eta oinarri arautzaileak.**

Mankomunitateburuaren ekainaren 15eko 422/2021 Dekretuaren bidez, Zamudioko udalerrian langabeak kontratatzeko dirulaguntzen programan sartzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartu da.

Derion, 2021eko ekainaren 16an.—Mankomunitateburua, Josu Andoni Begoña Fernández de Arroiabe

OINARRIAK ETA DEIALDIA, ZAMUDIO UDALERRIAN PERTSONEN ENPLEGUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO**1. oinarria.— Oinarrien eta deialdiaren xedea**

Oinarri eta deialdi hauen xedea da dirulaguntzak norgehiagoka-araubideari jarraituz emateko baldintzak arautzea, Zamudio udalerrian erroldatuta dauden eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda dauden langabeen kontratazioa sustatzeko eta errazteko.

2. oinarria.— Entitate onuradunak

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izan daitezke lan-kontratuak bertan ezarritako baldintzetan egiten dituzten enpresa, profesional edo entitateak, haien forma juridikoa bat zein beste izan, baldin eta honako betekizun eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Bizkaian izatea edo lantokia bertan izatea.
- b) Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLO) deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa jakinarazita izatea, kontratu-mota, kontratazio-aldia eta bete beharreko lanpostua zehaztuta. Enpresak berariaz adierazi beharko du eskabidean, LLOrik izn ezean.
- c) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- d) Ordainduta izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.
- e) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne.
- f) Ez egotea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean.

Honako hauek ezin izango dute dirulaguntza hauen onuradun izan:

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horietako edozeini lotutako edo horietako edozeinen mendeko erakundeak.
- Enplegu-zentro bereziak.
- Aldi baterako laneko enpresak, beste enpresa bati aldi baterako lagatzeko langileak kontratatuz gero.

Laguntza hauen programan parte hartzen ari diren bitartean, pertsona edo entitate onuradunek baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute.

**3. oinarria. — *Diruz lagun daitezkeen jarduketak***

Deialdi honen babesean dirulaguntza gai izan daitezke lau hilabeteko edo gehiagoko kontratu mugagabeak edo aldi baterakoak, baldin eta Bizkaian kokatutako lantokietan lanpostuak betetzeko badira eta 4. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonekin egiten badira.

Deialdi honen babesean diruz lagun daitezkeen kontratuak lan-arloko legeriarekin bat datorren edozein kontratu-modalitatearen arabera formalizatu ahal izango dira, honako hauek izan ezik: prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak, praktikaldiko kontratuak, aldizkako kontratu finkoak eta aldi baterako lan-enpresek enpresa erabiltzaile bati lagatzeko langileekin egindako kontratuak, betiere aldi baterako kontratuak edo kontratu mugagabeak badira, deialdi honetan ezarritako gutxieneko iraupena dutenak eta honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Kontratutako pertsonaren profilerako egokiak diren lanpostuak kontratatu behar dira.
- Kontratuak idatziz formalizatu behar dira, eredu ofizialean, eta honako datu hauek jaso behar dira berariaz bertan: langilearen prestakuntza eta/edo kualifikazio profesionala, kontratuaren hasiera-data eta, hala badagokio, amaiera-data, kontratuaren iraupena, lanaldia eta bete beharreko lanpostua.
- Kontratazioak berekin ekarri behar du enplegu-sorrera garbia, kontratatutako langilea lanean hasi aurreko hiru hilabeteetan enpresak batez beste duen plantillaren gainean.
- Kontratuak lanaldiaren %100ekoak izango dira.
- Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonaren edo pertsonen soldata-kostuen %75 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzakoak barne.
- Kontratuak 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko urriaren 31ra bitartean hasi behar dira.

4. oinarria. — *Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonak bete beharreko baldintzak*

Deialdi honek honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak kontratatzea du helburu:

- Zamudio udalerrian erroldatuta egotea eten barik; gutxienez sei hilabeteko antzintasuna izan behar dute, dirulaguntzaren xede den kontratuaren datatik aurrera.
- Kontratuak hasten den egunean, langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaila gisa izena emanda egotea, alta-egoera administratiboan.
- Kontratatu beharreko lanpostua betetzeko profil profesional egokia izatea.
- Enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoa edo ahaidea ez izatea, ezta sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetako edo zuzendaritzako kideren bat ere.

5. oinarria. — *Diru-baliabideak*

Deialdiaren diru-zuzkidura 16.000,00 eurokoa izango da guztira, «Enplegua sustatzea» izeneko 241 43300 aurrekontu-partidaren kargura, kontrataziorako zortzi dirulaguntza emateko.

6. oinarria. — *Laguntzen zenbatekoa*

Deialdi honek zortzi dirulaguntza ditu; 2.000,00 eurokoa bakoitza.

7. oinarria. — *Laguntzen arteko bateragarritasuna*

Oinarri hauetako eta deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak ez dira bateragarriak izaera edo helburu berberarekin beste administrazio batek edo beste entitate publiko edo pribatu batek eman dion dirulaguntza edo laguntzarekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariekin izan ezik.

**8. oinarria. — Eskabideak aurkeztea**

Entitate bakoitzak deialdi honetan zehaztutako kontrataziorako dirulaguntza-eskabide bi aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Deialdi honetan ezin izango dira bi diru-laguntza eskatu langile berarekin, ez entitateak berak, ez entitate desberdinek.

Kontrataziorako laguntza-eskabidea, eskatutako dokumentazioarekin batera, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko urriaren 31ra bitartean aurkeztu ahal izango da.

a) Lekua eta ordutegia

Dirulaguntza-eskabidea, eta dokumentazioa, aurkezteko moduak:

- Txorierrikeriko Zerbitzuen Mankomunitateko egoitza elektronikoa.
- Sarrera-erregistroan: Derion, Txorierriko Etorbidea 9 zenbakian, astelehenetik ostiralera, 9.00etatik 13.30era.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Entitate interesdunek «Enpresan parte hartzeko eskabide-orria» aurkeztu beharko dute, oinarri hauetako I. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Eskabidearekin batera, honako derrigorrezko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Eratze-eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalordeen egiaztagiria.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalordetze-eskritura.
- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Enpleguaren sorrera garbiari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).
- Alderdiak sinatutako lan-kontratuaren kopia, kontratazio hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari telematikoki jakinarazi zaiola egiaztatzen duen agiriarekin batera.
- Kontratutako pertsonaren NANaren edo AIZren kopia, eta altaren eta Eskaera Berritzeko LEABD dokumentua, Lanbide eman eta kontratuaren egunean indarrean dagoena.
- Kontratutako pertsonaren errolda-ziurtagiria.
- Kontratutako pertsonaren lan-ibilbidearen txostena (gutxienez jaso beharko ditu kontratazioa egin aurreko hiru hilabeteak eta kontratazioaren ondorengo eguna).
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren inskripzio-aldien ziurtagiria, kontratua hasi aurreko azken hiru hilabetei dagokiena.
- Dirulaguntzaren xede den kontratuaren berri ematea enpresaren legezko ordezkariari, behar bezala sinatuta, edo, ordezkariak ez badago, enpresaren legezko ordezkariarik ez dagoela adieraztea (IV. eranskina).
- Zinpeko adierazpen baten bidez aitortzea kontratatutako pertsona ez dela enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoa edo bigarren mailarainoko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko ahaidea, ez eta sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetako edo zuzendaritzako kideena ere (V. eranskina).
- Diru-laguntzaren xede den kontratazioan gainfinantzaketarik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina).
- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek egindako ziurtagiria, egindako kontratazioaren aurreko hiru hilabeteetan batez beste izandako plantillari buruzkoa.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek egindako ziurtagiria, kontratazioaren egun bereko batez besteko plantillari buruzkoa.
- Hirugarrenen altaren fitxa, banku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna justifikatzeko (VII. eranskina).

**b) Zuzenketa edo akatsak**

Eskabideak oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, osatugabea edo akastuna bada, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen derrigorrezko agiriak eramateko. Era berean, adieraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera eman ondoren.

9. oinarria. — Haztapen-irizpideak

Laguntzak emateko, emakida zuzeneko araubideari jarraituko zaio, banakako ebaluazio-sistema erabiliko da eta eskabidea aurkezteko hurrenkeraren arabera jokatu da, erregistro-zenbakiaren arabera.

Dirulaguntzak ematerakoan, behar bezala beteta aurkeztutako eskabideen hurrenkerari jarraituko zaio, eta beraz, ez da norgehiagokakoa izango. Aurrekontu-mugaren barruan jokatu da beti; aipaturiko aurrekontu-zuzkidura agortu ondoren, laguntzak eten egingo dira, harik eta beste aurrekontu-zuzkidura bat egon arte.

Eskabideren bat zuzendu behar izanez gero, zuzendu beharreko dokumentazioa erregistroan aurkeztu den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

Aurkeztutako eskabideak ikusita, aurrekontu-partidaren gehikuntza egitea justifikatzeko modua egongo da, beste deialdi bat egin behar izan barik.

10. oinarria. — Prozedura**a) Azterketa eta ebaluazioa**

Eskabideak baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta izapidetzeko onartu ondoren, baloratu egingo dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko, 9. oinarrian ezarritako haztapen-irizpideen arabera, eta irizpide horiek aplikatuta balorazio handiena lortu duten eskabideei esleitzea proposatuko da, finantzaketarako funtsak agortu arte.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. artikulua arabera, lortutako puntuazioaren eta, hala badagokio, aurkezteko hurrenkeraren arabera ordenatutako itxarote-zerrenda sortuko da oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete izan arren deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik ontzat eman ez diren eskabideetarako. Enpresa onuradunek diru-laguntzari uko egin diotelako edo ezarritako baldintzak bete ez dituztelako gerakinik badago, organo emaileak, beste deialdi bat egin behar izan barik, diru-laguntza itxarote-zerrendako egoeraren arabera ematea erabakiko du, kreditua agortu arte.

Ebazpen-proposamena ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio, eta Txorierriko Zerbitzu Mankomunitateko presidentetzak berariaz adieraziko du eskatutako diru-laguntza emango den ala ez.

b) Ebazpena

Aipatutako proposamena ikusita, Txorierriko Mankomunitateko presidentetzak ebazpena emango du.

Langabeak kontratatzeko dirulaguntzak emateko ebazpenean, dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta dirulaguntza justifikatzeko modua jasoko dira.

Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 2021eko azaroaren 30a izango da.

Deialdi honen izapideak arintzeko, laguntzen eskatzaileek honako hau izan beharko dute erabilgarri: posta elektronikoko helbide operatibo bat, tramitazioak irauten duen bitartean, dokumentazioa aurkeztean detektatutako akatsak zuzentzeko, edo eskatutako laguntzak modu arin eta eraginkorrean ebazteko beharrezkoa den beste edozein errekerimenduri erantzuteko, legezko eran.

Txorierriko Mankomunitateko presidentetzaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsua aurkez dakioko organo



horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

11. oinarria. — Laguntza ordaintzea

Laguntzak bi ordainketatan zatituta emango dira: %50, laguntza ematen den egunean, eta beste %50, kontratazioa egin dela eta laguntza emateko eskatutako baldintzak bete direla justifikatu ondoren, laguntza emateko baldintzak egiaztatzeko ezar daitezkeen kontrolak alde batera utzi gabe.

Horretarako, deialdi honen 12. oinarrian zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du entitate onuradunak.

Diru-laguntza ez da ordainduko pertsona edo entitate onuradunak justifikazio-epea amaituta duen diru-laguntzaren bat justifikatzeko badu. Halaber, ez da ordainduko pertsona edo entitateak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

12. oinarria. — Laguntzak justifikatzeko agiriak aurkeztea

Laguntza horiek justifikatzeko eta haien helburua betetzeko, laguntzaren onuradun izateko eskaera egin duten entitateek kontratazioak egiazkoak direla egiaztatzen duen dokumentazioa, oinarri hauetan jasotako baldintzei jarraituz, 2021eko abenduaren 31ra arte aurkeztu beharko dute. 2021eko abuztuaren 1aren ondoren egindako kontratazioek, lau hilabete pasa eta hurrengo hilean aurkeztu beharko dute aipatu dokumentazioa.

a) Lekua eta ordutegia

Kontratazioaren ziurtagiriak aurkezteko moduak:

- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko egoitza elektronikoa.
- Sarrera-erregistroan: Derion, Txorierriko Etorbidea 9 zenbakian, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era

Egiaztagiriek ez badituzte oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen, agiriren bat falta bada edo akastuna bada, interesatuari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinaraziko zaio hori egin ezean ez-betetzat joko dela eta diru-laguntzaren itzulketa ebatziko dela.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Entitate interesdunek kontratazioa justifikatu beharko dute, egiaztagiririak aurkezteko ereduaren bidez, eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute horretarako:

- Egiaztagiririak aurkezteko ereduak (III. eranskina), behar bezala beteta.
- Kotizazioen likidazioaren ordainagiria, Langileen izen-zerrenda eta diru-laguntza epealdiko nominen ordainketaren frogagiria.
- Memoria laburtua, plantilla ofizialeko kontratazio-kostuak barne (VIII. eranskina).
- Diru-laguntza honen helburua justifikatzeko egokia den beste edozein informazio.

13. oinarria. — Entitate onuradunaren betebeharrak

Diru-laguntza hauen entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea.
- Laguntza honen kargura jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, fiskalizazio-funtzioak betetzeko eskatzen zaionean.
- Unean uneko informazioa ematea hitzartutako baldintzen edozein aldatetari buruz edo kontratazioaren ondoren sortzen den edozein arazori buruz.
- Gainera, emandako dirulaguntzari buruz egokitzen jotzen den zenbat gura ikuskapen egin ahal izango da.

**14. oinarria. — Ez-betetzea eta laguntza itzultzea**

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, bai eta dirulaguntza ordaintzen den unetik dagozkien legezko interesak eskatu ere, baldin eta onuradunek deialdi honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarrিতako baldintzak betetzen ez badituzte; hori guztia, ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzak alde batera utzi gabe.

Ez-betetzea, enpresa baztertea, horrek dakarren itzultzeko betebeharra eta emateko zain dauden laguntzak jasotzeko eskubidearen galera Txorierriko Mankomunitateko presidentetzaren ebazpen bidez deklaratu dira.

15. oinarria. — Izaera pertsonaleko datuak babestea

Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, Txorierriko Zerbitzu Mankomunitateak jakinarazi du Oinarri hauen bidez araututako deialdiaren xede diren dirulaguntzak izapidetzeko dokumentazioan datozen datu pertsonalak kontratazioa sustatzeko laguntza-deialdi hau kudeatzeko tratatuko direla. Tratamenduaren legitimitasioa interesdunek adierazitako adostasunean oinarritzen da.

Emandako datu pertsonalak legez aurreikusitako aldietarako gordeko dira; nolana ere, interesdunak datuak ezabatzeko eskaera egin ahal izango du. Deialdiaren xedea amaitzen den egunean, datuak blokeatu egingo dira, ez daitezten tratatu, salbu eta Administrazio Publikoen eta Epaimahaien esku jartzeko, tratamenduak eragin ditzakeen erantzukizunei erantzuteko, bakar-bakarrik erantzukizun horien preskripzio-epean.

Nolana ere, interesdunari informazioa emango zaio eta baimena emango du bere datuak aipatutako helbururako tratatzeko, bai eta aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkartei edo finantza-entitatei lagatzeko ere, enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan merkatuan bitartekotza egiteko eta lan-merkatuari buruzko azterlanak eta analisiak egiteko.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonaletara irispidea izateko, bai eta zuzenak ez diren datuak zuzentzeko eskatzeko ere, edo, bestela, datuak ezabatzeko eskatzeko, besteak beste, datuak ez badira beharrezkoak bildu ziren helburuetarako.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute; kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez ditugu gordeko.

Egoera jakin batzuetan eta euren egoera partikularrarekin lotutako arrazoiengatik, interesdunek euren datuak tratatzearen aurka egin ahal izango dute. Mankomunitateak datuak tratatzeari utziko dio, premiazko arrazoi legitimoengatik edo erreklamazioak egin edo defendatzeagatik izan ezik.

Erabiltzaileak eramangarritasunerako eskubidea izango du, eman dituen datu pertsonalak zuzenean beste arduradun bati helarazteko, erabilera komuneko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratuan, teknikoki ahal izanez gero.

Datuen titularrak, edo haren legezko ordezkariak, bere nortasuna egiaztatuz gero, aipatutako eskubideak baliatu ahal izango ditu helbide elektronikoko honetara mezu elektronikoa bidalita: Mankomunitatea@txorierri.eu edo posta arruntez: Txorierriko Etorbidea, 9, behea, Derio (48160).

Eskubideei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo daiteke: <http://www.avpd.euskadi.eus/>

Eskubideen titularra ez bada pozik geratu eskubide horiek baliatzean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren laguntza eskatu ahal izango du, eskubideen erabilera eraginkorra izan dadin. Horretarako, eskubideen tutoretzako erreklamazioa aurkeztu beharko du (<http://www.avpd.euskadi.eus/>).

16. oinarria. — Azken xedapena

1. Laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.
2. Entitate interesdunek eskubidea aurkezteak oinarriak erabat onartzea dakar.

**I. ERANSKINA****ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDEAREN EREDUA**

ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDE-ORRIA, ZAMUDIO
UDALERRIAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO
LAGUNTZA-PROGRAMAREN DEIALDIAREN ESPARRUAN-2021. URTEA

Jauna/andrea: NAN:
Bere izenean edo honako enpresa honenean (ordezkaritza-ahalmena adierazi):
..... Enpresaren IFK:
egoitza soziala; P.K.
udalerrria; telefonoa
Posta elektronikoa

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZI DU:

I. Zamudioko udalerrian erroldatutako pertsonen kontratazioa bultzatzeko laguntzen deialdiaren esparruan kontrataziorako laguntza-proiektuen Oinarri Arautzaile berrien edukiaren berri izan du.

II. Ordezkatzen duen entitateak betetzen ditu aipatutako oinarrietan eskatutako betekizun eta betebeharrak guztiak, eta berariaz hartzen ditu bere gain oinarrietan jasotako betebeharrak guztiak.

III. Aipatutako oinarriari atxikitzea eskatzen du, honako ezaugarri hauek dituen kontratazioa diruz laguntzeko:

- Lanpostua (1):
- Kontratu-mota:
- Hasiera-data:
- Kontratuaren iraupena:
- Lanaldia:
- Jardueraren sektorea:

(1) Adierazitako lanpostuak beti etorri behar du lan-kontratuan jasotako lanpostuarekin.



- «Enpresak parte hartzeko eskabide-orri» honekin batera, honako agiri hauek arukeztu dira:
- Enpresaren IFKren kopia.
 - Legezko ordezkartzaren NANaren kopia eta ahalordetze-eskritura, hala badagokio.
 - Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoa egunean duela ziurtatzen duen agiria.
 - Enplegu-sortze garbiaren erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).
 - Alderdiak sinatutako lan-kontratuaren kopia, kontratazio hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari telematikoki jakinarazi zaiola egiaztatzen duen agiriarekin batera.
 - Kontratututako pertsonaren NANaren edo AIZren kopia, eta altaren eta Eskaera Berritzeko LEABD dokumentua, Lanbidek emana eta kontratuaren egunean indarrean dagoena.
 - Kontratututako pertsonaren errolda-ziurtagiria.
 - Kontratututako pertsonaren lan-ibilbidearen txostena (gutxienez jaso beharko ditu kontratazioa egin aurreko hiru hilabeteak eta kontratazioaren ondorengo eguna).
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren inskripzio-aldien ziurtagiria, kontratua hasi aurreko azken hiru hilabetei dagokiena.
 - Dirulaguntzaren xede den kontratuaren berri ematea enpresaren legezko ordezkartzari, behar bezala sinatuta, edo, ordezkari ez badago, enpresaren legezko ordezkari ez dagoela adieraztea (IV. eranskina).
 - Zinpeko adierazpen baten bidez aitortzea kontratatutako pertsona ez dela enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoa edo bigarren mailarainoko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko ahaidea, ez eta sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetako edo zuzendaritzako kideena ere (V. eranskina).
 - Diru-laguntzaren xede den kontratazioan gainfinantzaketarik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina).
 - Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek egindako ziurtagiria, egindako kontratazioaren aurreko hiru hilabeteetan batez beste izandako plantillari buruzkoa.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek egindako ziurtagiria, kontratazioaren egun bereko batez besteko plantillari buruzkoa.
 - Hirugarrenen altaren fitxa, banku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna justifikatzeko (VII. eranskina).
- Lekua, data, sinadura eta zigilua



III. ERANSKINA

EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEKO EREDUA

EGIAZTAGIRIEN AURKEZPENA «ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDEAN»,
ZAMUDION ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO
LAGUNTZA-PROGRAMAREN DEIALDIAREN ESPARRUAN-2021. URTEA

Jauna/andrea: NAN:
Bere izenean edo honako enpresa honenean (ordezkaritza-ahalmena adierazi):
..... Enpresaren IFK:
egoitza soziala; P.K.
udalerrria; telefonoa
Posta elektronikoa

Honako dokumentazio hau erantsi da:

- Kotizazioen likidazioaren ordainagiria, Langileen izen-zerrenda eta diru-laguntza epealdiko no-
minen ordainketaren frogagiria.
- Memoria laburtua, plantilla ofizialeko kontratazio-kostuak barne (VIII. eranskina).
- Diru-laguntza honen helburua justifikatzeko egokia den beste edozein informazio.

Lekua, data, sinadura eta zigilua

**V. ERANSKINA****AHAIDETASUNIK EZARI DAGOKION ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA**

ZAMUDIO UDALERRIAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-DEIALDIAREN BARRUAN (2021. URTEA), DEIALDIRA AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOETAN AHAIDETASUNIK EZAREN BETEKIZUNA BETETZEKO KONPROMISOARI BURUZKO ERANTZUKIZUNEPEKO ADIERAZPENA

Jauna/andrea: NAN:
Bere izenean edo honako enpresa honenean (ordezkaritza-ahalmena adierazi):
..... Enpresaren IFK:
egoitza soziala; P.K.
udalerrria; telefonoa
Posta elektronikoa

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZI DU:

Oinarri hauetan araututako laguntzen bidez kontratatu gura diren pertsonak ez dira ez ezkontideak, ez ondorengoak, ez dute odol- edo ezkontza-ahaidetasunik —bigarren mailarainokorik—, eskabidea egin duen enpresako enpresaburuarekin, edo enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo administrazio-organoetako kideekin, eta ez da, halaber, aipatutako horietakorik.

Lekua, data, sinadura eta zigilua

**VIII. ERANSKINA
AZKEN MEMORIAREN EREDUA**ZAMUDIO UDALERRIAN ERROLDATUTA DAUDEN LANGABEAK KONTRATATZEKO
LAGUNTZA-PROGRAMAREN DEIALDIAREN (2021. URTEA) AMAIERAKO MEMORIA**Enpresa kontratzailearen datuak**

Eskabidearen sarrera-data	IFK	Enpresaren izena	Enpresaren titularra	Titularraren NAN	Udalerrria

Kontratutako pertsonaren datuak

Kontratuaren hasiera-data	Kontratuaren amaiera-data	NAN	Izen-abizenak	kontratutako pertsona erroldatuta dagoen udalerrria

Dirulaguntzaren xede den kontratuaren datuak eta soldata-kostua

Kontratuaren hasiera-data	Kontratuaren amaiera-data	Lanpostua	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)	Soldata-kostua (€)	GSDN kostua (€)	Kontratu-amaieraren kalte-ordainaren kostua (€)	Kostua guztira (soldata-kostua + GSDN kostua + Kontratu amaieraren kalte-ordainaren kostua) (€)

Lekua, data, sinadura eta zigilua